

txintxarri



Dantza jalgi da plazara

Usurbilgo, Suancesko (Kantabria) eta Lasarte-Oriako dantza taldeen emanaldiak egin ziren iragan asteburuan. / 6-9

TXINTXARRI

Osasunaz hizketan

Aterpea merkatarien elkarteak antolatuta, osasun jardunaldiak izango dira Villa Mirentxun / 3

Lankidetzaz hitzarmena sinatu du udalak Lasarte-Oriako lau kirol zentro pribaturekin / 5

Imanol Galarraga herritarrak Zegama-Aizkorri mendi maratoia egin zuen pasa den igandean / 10

EAGI LHII ERAIKIN-ADIMENDUNEN GARAPEN IRAUNKORRA CIPF DESARROLLO SOSTENIBLE EN EDIFICACION INTELIGENTE

PASSIVHAUS FORMAKUNTZA

ERRONKEN BITARTEZ ETXE BAT ERAIKIKO DUZU 2 URTEAN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

AURREMARIKULAZIO EPEA: Ekainaren 5etik 16ra

www.eagi.eus • Donostia Etorbidea, 5 Lasarte-Oria, Gipuzkoa • +34 943 569 222 • eagi@eagi.eus

ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK



Eraikuntzako teknikaria



Barruko obrak, dekorazioa eta birgaitzeko teknikaria



Eraikuntza-obrak antolatze eta kontrolatzeko goi-mailako teknikaria

Nagusia 49, Lasarte-Oria 943 37 02 90

Jantzi denda

INQUIETUD

38-60 neurriak



Jardunaldietan parte hartuko duten dendariak, Jesus Zaballos alkatearekin batera, egitarauaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Osasuna eta ongizatea, herriko denden eskutik

Logopedia, hortzen higieena, estresa eta osteopatiari buruzko hitzaldiak emango dituzte asteleheneetik ostiralera, Villa Mirentxun. Herriko hainbat dendatan ere izango da osasuna, ongizatea eta estetikari buruzko jardunaldietan parte hartzeko aukera

Txintxarri

Gero eta handiagoa da herritarren jakin-mina osasuna, estetika eta ongizatearen inguruan, baina zalantzak ere ugariak izan ohi dira. Datorren astean horietako asko argitzeko aukera izango da, Aterpea merkataritza elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako jardunaldietan. Herriko dendariak hitzaldiak emango dituzte egunero-egunero, asteleheneetik ostiralera, Villa Mirentxun; logopedia, osteopatia, hortzen higieena, estresa eta beste hainbat gai jorratuko dituzte. Horrez gainera, merkataritza elkarteko dendetan ere izango dira ekitaldiak aste osoan.

Villa Mirentxun zazpi dendak azalduko dute haien jarduna. Astelehenean, 19:00etan, Hitz Kiribil logopedak hitzaldia emango du: *Zer da logopedia? Nola lagun diezaioket nire semeari?* Hurrengo egunean, asteartean, bi hizlari izango dira. Amaia Olondris podologoak

Oin-arrastoaren estudioa azalduko du, 17:00etan. Ondoren, 18:00etan, Maiane lurrundenda azalaren zaintza naturalei buruz arituko da.

Asteazkenean, 18:00etan, Noelia Calero osteopatak umeen, emakumeen eta haurdunen osasunari buruz hitz egingo du. Ostegunean ere bi hitzaldi egongo dira: Aldaz hortz klinikak hortzen zuriketaren eta higienearen inguruan jardungo du, 17:00etan. Jarraian, Lasarte-Oriako Parafarmaziak estresa eta haren tratamendua azalduko ditu, 18:30ean. Ostiralean amaituko dira jardunaldiak: Haritza Terapia Energetikoak *Osteopatia, bizimodu bat* hitzaldia emango du.

**LEHENENGOZ
ANTOLATU DITUZTE
JARDUNALDIK,
GAIK PIZTEN DUEN
INTERESA IKUSITA**

Horrez gainera, aste osoan bost dendatan ere izango da jardunaldietan parte hartzeko aukera. Oihana Estetikan aurpegiarako eta gorputzerako tratamenduen inguruan arituko dira, astelehenean, 11:00etan; Ana ileapaindegian zorrien tratamendu naturalak azalduko dituzte, asteartean, 18:00etan; Naturhousen elikadura intolerantziaren azterketa doan egingo dute astelehenean, aurretik ordua eskatuta; Lizarri optikan ikusmen azterketa egingo dute doan aste osoan; eta, azkenik, Eka Yoga Studio yoga tailerra egingo dute ostiralean, 19:00etatik aurrera.

Jesus Zaballos Lasarteko alkatearen esanetan, jardunaldiek erakusten dute herriko merkataritza bizirik dagoela. "Estetika, osasuna eta ongizateari buruzko interesak bultzatu du jardunaldi hauek egingo diren lehena. Espero dugu lasartearrek parte har dezaten. Horrek esan nahiko du interesa piztu duela".

NEURE KABUZ



UNAI MUÑOA

'Bullying'

Bullying-ak protagonismo berezia hartu du azken garaietan. Gero eta gehiago gara gai honekin kezkatu garenak, baina, ez dakit behar beste sakontzen dugun afera honen inguruan.

Askotan idatzi dut emozioen munduari buruz, eta kasu honetan ere, hala dagokit. Jakina da, amorruek giza emozio basiko bezain ezinbestekoa dela. Nola defendatu gure burua arriskuen aurrean amorrurik gabe? Nola gainditu zenbait erronka amorruek energia baliatu gabe? Amorruek laguntza digu gure espazioa defendatzen eta beldurrei zein zailtasunei aurre egiten. Baina, emozio guztiek bezala, gaizki kudeatuz gero, eraikitzeko balio duena, suntsitzeko erabili genezake, eta are gehiago, amorruei zilegitasuna kentzen diogunean.

Amorruek gero eta espazio gutxiago duela iruditzen zait, eta gainera, indarkeriarekin nahasten dugu gehiegitan, baina ez dira gauza bera. Indarkeria, gaizki bideratutako amorruek dela esango nuke, erreka urak bezala, bide naturalari jarraitu ezin dionean aukera alternatiboak bilatzen dituen. Horrela, modu natural batean adierazten ez dugunean, zeharkako bideak aurkitzen ditu, nor bere baitan pilatzen ez denean behintzat, eta kasu horietan, ur geldiarri gertatzen zaion moduan, usteldu egiten da eta pozoitu egiten gaitu.

Bururatzeko zaidan galdera, beraz, hurrengoa da; zein espazio eskaintzen diogu ikasleen amorruei? Adibidez, irakasleok, gurasoek, gizarteak ... nola jokatzeko dugu amorruek aurrean? Amorrutzea txartat jotzen badugu, bere adierazpena mugatzea besterik ez dugu lortzen, eta orduan, klandestinitatera jotzen dugu, atzeko atletik, alegia.

Agian, *bullying*-ak izan dezake honekin zer ikusia. Ezin badut nire amorruek azaldu, ezin badut desadostasuna adierazi, ezin badut gehiegikerien aurrean nire burua defendatu, ez bazait haserretzeko eskubidea onartzen ... gelako ahulenaren kontra erabiliko dut amorruek geldia, eta berak ordaindu beharko ditu nire frustrazioak. Helduen munduan ere ikusten da hori, nagusiari ezin erantzun eta etxekoekin ordaintzen ditugunean gure *mala ostiak*, adibidez.

Auziak sinplifikatzen ari gara, eta gaiztoak eta txintxoak baino haratago ez badugu begiratzen, tiranoak eta biktimak bereizten baditugu naturaren lege bat balitz bezala, ez ditugu inoiz benetako gakoak topatuko. Baliteke *bullying*-ari aurre egiten eraginkorrak bihurtzea, baina ziur nago, amorruek bide alternatiboak bilatzen jarraituko duela, ez badiogu begietara begiratzen.

Kooperazio proiektuetarako 67.478 euro emango ditu udalak

Bost proiektu finantzatuko ditu diru horrekin: Kuban, Nikaraguan, Guatemalan, Nikaraguan eta Tindufen

Lasarte-Oriako Udalak 67.478 euro emango ditu kooperazio proiektuetarako. Batzorde informatiboak aho batez hartu du erabakia; diru horrekin bost proiektu finantzatuko dituzte, baikotza 13.496 euroekin. Proiektu horiek Euskal Fondoak aurkeztutako proiektu politatik aukeratu dira. EAEko Udal Kooperatzaileen Elkarteak da Lasarte-Oriako Udala.

Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpalekuan garraio azpiegiturak zabalduko dituzte.

Bestetik, Nikaraguako Melchorita komunitatearentzat edateko urez hornitzeko sistema egingo dute. Guatemalan, berriz, Chal, Fray Bartolome eta Raxruha udalerrietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegia lantzeko "prozesu estrategikoak" ezarriko dituzte. El Salvadorren, Morazango departamenduan, ura eskuzteko eta garbitzeko sistema ezarriko dute. Azkenik, Habanan gizarte arretarako programa sendotuko dute.



Hainbat pertsonak egin zuten bat arratsaldeko martxa nazionalarekin joan den larunbatean. NOAOA!

Errausketaren aurkako aldarria Zubietan

Jendetza elkartu zen joan den larunbatean Zubietan, errausketari ezetz esan eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan eraiki gura duen planta arbuiatzeko. Hainbat ekintzak osatu zuten egitaraua, eta pankartak eskuetan, obra-eremura martxa nazionala egin zuten

Iñigo Gonzalez

Non egongo ote gara 2051. urtean? 35 urte barru... Nola biziko dira gure ondorengoak? Nolako airea arnastuko dute?". Gisa horretako galderak botaz ekin zioten manifestua irakurtzeari Maialen Iñarra eta Juanmi Galatas zubietarrek. Galdera ugari egin zituzten joan den larunbatean, baina erantzunak ere eman zituzten. Errausketari ezetz esan zioten Zubietara gerturatu zirenek. Egun osoko egitaraua antolatu zuten Errausketaren Aurkako Mugimenduak eta Gipuzkoa Zutikek: hitzaldiak, tailerrak, adierazpenaren irakurketa, herri bazkaria, obren eremura martxa nazionala eta azken ekitaldia. Jende ugari animatu zen horietan parte hartzera.

Valdemingomezen kasua

Hitzaldietako bat Valdemingomezeko errauste plantari ezetz esateko aliantzako plataformako kide Javier Navascuesek eskaini zuen. Madril inguruan dago

Valdemingomez. Kontatu zuen Valdemingomezeko errauste plantaren aurka borrokan nola daramatzaten hainbat urte: "Vietnameko biztanleek esan ohi zuten bezala, porrotez porrot joango gara garaipenera arte. Irabaziko dugula uste dut".

"Osasun krisi batean bizi gara"

Adierazpenaren irakurketa izan zen eguerdiko ekitaldi nagusia. "Ezin dugu onartu erraustegi inposatu bat, datozen 35 urtean gure osasuna, ingurumena eta finantzaketa publikoa kaltetuko dituen", adierazi zuten. "Osasun krisi batean bizi gara. Gero eta minbizi eta gaixotasun berezi gehiago... Nola baimendu dute erraustegi berri batekin kutsatzea gure airea eta ondorengoek arnastuko dutena?".

Errausketaren aurkako mugimendu sozialak orain arte egindako ibilbidea ere errepasatu zuen: "Urte asko daramatzagu 'Errausketarik ez!' oihukatzen. Urteak daramatzate Gipuzkoan

erraustegia egin nahian zerbitzu publikoekin aberasten diren enpresa handi ustelak eta lotsa gutxiko zenbait politikari. Erraustegia oraindik eraiki gabe egotea...ez al da garaipen bat izan?".

Era berean, goraipatu zuten hainbat udalerrik hondakinak kudeatzeko erabiltzen duten sistema alternatiboa. "Udalerrri askok urratutako bideari beste guztiok jarraitzea ezinbestekoa da. Foru Aldundia gobernatzen duten alderdiei berriro esan nahi diegu: gelditu ezazue proiektua".

Martxa eta azken ekitaldia

Arratsaldean jarraitu zuten ekintzek, Gipuzkoa Zutiken eskutik. 16:00etan abiatuta, jendetza joan zen errauste plantaren obren eremura, pankartak eskuetan, martxa nazionalarekin bat eginda.

Handik ordu batzuetara, arratsaldeko zortzietan, azken ekitaldia eginez eman zioten amaiera errausketaren aurkako egunari.



Buruntzaldeako autoeskoletako zenbait arduradun, kanpainaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria izango du

Azken urteen antzera, Buruntzaldeko udalek gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina aurkeztu zuten astelehenean

Maddi Noriega

Urtez urte geroz eta ikasle gehiago animatzen dira gidabaimena euskaraz ateratzera. Sustatzaileek jakitera eman duten moduan, iaz 96 ikasle izan ziren Buruntzaldea osoan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditu zutenak.

Parte hartzeko baldintzak

Sariak eskuratzeko hainbat baldintza bete beharko ditu interesatuak. Buruntzaldeko herriren batean erroldatuta egon beharko da, gidabaimenaren atal teorikoa 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean gainditu beharko du eskualdeko autoeskolaren batean, eta, azkenik, inprimakia beteta entregatu beharko du egitasmo honekin lankidetzan diharduen autoeskoletan.

Lasarte-Orian, Mugica autoeskoletako ikasleek parte

hartu ahal izango dute aipatu ekimenean.

Horrez gain, herritarren batek eskualdeko beste autoeskolaren batean atera nahiko balu, izango du aukera bat baino gehiago; Andoaingo Bengoetxean eta Mendin; Loiolako Otamendin, Hernaniko Hernanin, Lagunak eta Otamendin; eta Urnietako eta Usurbilgo Solozabalen.

Sarien zozketa 2018ko urtarrilean egingo dela iragarri dute sustatzaileek, eta aurtengoan bederatzizari banatuko dira guztira: Andoainen bi, Loiolan bat, Hernanin hiru, eta bana Lasarte-Oria, Urnietan eta Usurbilen. Sariak teorikoaren prezioaren balioa izango dute, gehienez 400 euro.

Sustatzaileek jakitera eman dutenez, 2017an 18 urte beteko dituzten gazteek informazioa jasoko dute etxeetan.

DIRECTION Taldeko agentzia

NOAOA
BIDAIAK

Lasartetik irteera
Noaoaren laguntzarekin

POLONIA

Abuztuaren 29tik
irailak 5 arte

Tel: 943 373 613 • info@noaoa.eus • www.noaoa.eus
Hipodromo Etorbidea 10, 20160 LASARTE-ORIA

Badator antzerki eta dantza hamabostaldia

Ekainaren 6tik 18ra bitarte, askotariko antzerki eta dantza emanaldiez gozatu ahal izango dute lasarteoriarrek. XV. Antzerki eta Dantza hamabostaldia egingo da egun horietan, eta, antzerki emanaldiekin batera, dantza ikuskizunak ere izango dira egitarauaren baitan

Maddi Noriega

Hamabost urte bete ditu, aurten, Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak. Zabaleta auzoan eman zituen lehen urratsak, eta, ordutik hona, etenik gabe ari dira antzerkiaren eta dantzaren munduan lanean.

"Orain hamabost urte hasi ginen Zabaletan. Herritik jende asko etortzen zen guregana, eta egoera hura ikusita Lasarte-Oriako herrira eta ikastetxeetara zabaltzea erabaki genuen". Horrela azaldu dio TXINTXARRI-ri Kontxu Iartza Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako kideak.

Urtero moduan, aurten ere izango da antzerki eta dantza hamabostaldia gurean.

Zabaletako jaiekin bat eginaz, bihar, eguerdiko 12:00etan auzoko plazaetik abiatuko da Kukukaren desfilea.

Lehen ekitaldi horren ostean, ekainaren 6an hasiko dira antzerki emanaldiak, Manuel Lekuona kultur etxean. Egun

horretan, LH3. 4. 5. eta 6. mailako gaztetxoek txanda izango da. Goizeko saioa (09:45ean) ikasleentzako izango da, eta, arratsaldeko saioa, berriz, gainerako ikus-entzuleei zuzenduko zaie.

Ekainaren 7an ere adin horretako ikasleak arituko dira oholtza gainean, eta, aurreko egunaren antzera, goizeko ordutegian (10:30ean) ikasleei zuzendutako saioak izango dira. Arratsaldekoak (19:00etan) gainerako ikus-entzuleek izango dute bertaratze aukera,

LH1. eta 2. mailako gaztetxoek txanda izango da hurrengo egunean. Ekainaren 8an, Landaberri, Sasoeta eta Zubietako ikasleak arituko dira antzele lanetan. Egun horretan ere bi saio egingo dira emanaldi bakoitzeko; 10:30ean ikasleentzako, eta, 19:00etan bertaratu nahi duten gainerako ikus-entzuleentzako.

Hiru eguneko atsedenaldiaren ostean, ekainaren 12an bueltatuko

dira kultur etxeko oholtzara antzele gazteak. Egun horretan LH1. eta 2. mailako gazteen txanda izango da berriz ere, eta, ohi bezala, goizean (09:45ean) eta arratsaldean (19:00etan) izango dira emanaldiak.


Ekainaren 14an ere izango da antzerkiaren gozatze tarterik. Goizean, ikasleentzako txanda izango da eta bi ordutegi finkatu dituzte: 10:30ean lehena, eta 12:45ean bigarrena. Arratsaldean, berriz, publiko zabalarari zuzendutako saioak izango dira, 19:00etan.

Antzerki emanaldiekin amaitzeko, ekainaren 16an eta 17an ere bi antzerki obra eskainiko dira, biak iluntzeko 20:00etan.

Dantza emanaldiak

Antzerki saioekin batera, dantza ikuskizunak ere izango dira.

Ekainaren 17an, larunbatean, dantza garaikideaz gozatu ahal izango dute lasarteoriarrek iluntzeko 20:00etan.



Hamabosgarren antzerki eta dantza hamabostaldia izango da aurtengoa. TXINTXARRI

Hurrengo egunean ere, hilaren 18an, Euskal Dantza eta Euskal Dantza sorkuntza bi saio izango dira ikusgai. Lehena, eguerdiko 12:00etan izango da eta Landaberri, Sasoeta eta Zubietako HH5. mailatik LH3. mailara bitarteko

gaztetxoak izango dira protagonistak oholtzan. Bigarren emanaldia, berriz, arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta LH eta DBHko haur eta gazteen parte hartzearekin batera, helduak ere dantzan arituko dira taula gainean.

Urte osoko lana erakutsi dute asteazkeneko dantza emanaldian

Udal dantza eskolak ikasturte amaierako emanaldia eskaini zuen asteazkenean, kultur etxeko areto nagusian

Maddi Noriega

Lasarte-Oriako Udal Dantza eskolako ikasleek ikasturtean ikasitako dantzak taularatu zituzten asteazkenean, Manuel Lekuona kultur etxean.

Erakustaldi animatua eskaini zuten dantza eskolako ikasle gazteek. Koloretako mozorroak soinean, askotariko doinu ezagunekin girotutako dantzak eskaini zizkieten kultur etxeko areto nagusian bildutako senide eta ikus-entzuleei.

Iluntzeko 19:30ean eman zioten hasiera ekitaldiari, eta ordurako,



Manttangorri dantzariak. TXINTXARRI

jendez lepo zegoen kultur etxeko areto nagusian.

Manttangorriak dantza taldeko gaztetxoak izan ziren oholtza gainera igo ziren lehen partaideak, eta Johann Strauss XIX. mendeko musikariaren doinuek lagundutako dantza eskaini zuten.

Horiekin batera, Frozen eta Toy Story filmetako pertsonaiez, zein marinelez jantzizako gaztetxo ugari aritu ziren oholtzan ordubete inguruko saioan.

Antolatzaileek bi zati nagusitan banatu zuten asteazkeneko emanaldia eta beste zenbait doinuren artean, Josef Strauss, A. Ponchielli eta J.S. Bach artisten zenbait doinu ere dantzatu zituzten Udal Dantza eskolako taldeek. Giro atsegina sumatu zitekeen Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian.

Lau musika emanaldik osatu dute aurtengo V. Musika Astea

'La del manojo de Rosas' zarzuelak eman dio amaiera Danok Kide Guraso elkarteak antolatutako V. Musika Asteari

Txintxarri

Danok Kide Guraso elkarteak, udalarekin elkarlanean, lau ikuskizun antolatu ditu aurtengo musika astearen bosgarren edizioan. Musika emanaldiz beteta igaro dira azken bi asteburuak Lasarte-Orian.

Kamerata Oiasoren emanaldiak eman zion hasiera aipatu egitasmoari, maiatzaren 20an Brigitarren Komentuan emandako kontzertuarekin.

Horri jarraiki, Lirica Itsasoren txanda izan zen gero, eta, talde honek ere, errepertorio zabala

eskaini zuen maiatzaren 20an, Manuel Lekuonan.

Pasa den asteburuan, berriz, beste bi emanaldi izan ziren ikusgai: larunbatean, Irungo kontserbatorioko ikasleek emanaldi ederra eskaini zuten kultur etxeko auditorioan. Raffaella Accella zuzendariaren gidaritzapean, Mozart eta Vivaldiren zenbait pieza interpretatu zituzten, besteak beste.

Larunbatean, musika asteari amaiera emanaz, *La del manojo de rosas* zarzuela izan zen ikusgai.



Kiroi zentroen ordezkariak, alkatearekin batera -erdian-, ituna izenpetzen, kiroldegian. TXINTXARRI

Udala eta kirol zentroak, "sinergiak sortzen"

Lankidetzeta hitzarmena egin du udalak lau zentro pribaturekin. Yogalasarate, Aerobic Saito, Koroibos CrossFit eta Miracampos hipikan deskontua izango dute kiroldegiko bazkideek. Trukean, udal instalazioak erabili ahal izango dituzte zentro horiek

Txintxarri

"Bide berri bat ireki da". Lasarte-Oriako Udalak lan hitzarmen bat sinatu du lau zentro pribaturekin, elkarren artean "sinergiak sortzeko" helburuz. Jesus Zaballos alkateak eta zentro

horien ordezkariak izenpetu dute akordioa. "Beharrezkoa da administrazio publikoak eta enpresa pribatuek elkarrekin lan egitea herritarren mesederako", adierazi du Zaballosek. Horrela, kiroldegiko

bazkideek deskontuak izango dituzte zentro pribatu horietan, ordutegi jakin batean betiere. Kirol elkarte pribatu horiek ere izango dituzte onurak: haien ekitaldi propioak egiteko udal kirol instalazioak eskuragarri

izango dituzte, baita udalaren babesa ere, hala nola, Udal-tzaingoaren laguntza eta udalaren hesiak, oholtzak, zabor-kontainerrak, argindarra eta beste baliabideak erabiltzeko aukera.

Yogalasarateko Juan Jose Urbietak, Miracampos hipikako Maria Velillak, Koroibos CrossFiteko Alejandro Tomasek eta Aerobic Saitoko Patricia Martinek sinatu dute ituna. Alkateaz gainera, Txus Alonso Kirol zinegotzia eta Karlos Altuna kiroldegiko kudeatzailea izan dira ekitaldian. "Gipuzkoan egin den gisa honetako lehen ituna da. Antzeko ereduak bilatu nahi izan ditugu, baina hemen inguruan ez daude", esan du Altunak.

Itunari esker, kiroldegiko jardueraz harago, kirolaz gozatzeko aukera zabalagoa izango dute bazkideek. Yogalasaratek tarifaren gaineko %20ko deskontua eskainiko die. Astelehenetan eta asteazkenetan, 09:30etik 11:30era, eta asteartetan eta ostegunetan, 20:30etik 22:00etara eskaini ditu eskolak Yogalasaratek.

Aerobic Saitok %25eko deskontua jarriko du bazkideen esku. Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 17:00etara, spinning, aerobic, step, zumba, pound fit eta jumping fitnessa egin ahal izango dute bazkideek. Muskulazio aretoan aholkulariekin entrenamenduak

egiteko aukera ere badu gimnasioak.

Miracampos hipika zentroak hastapen eskoletan egingo die beherapena kiroldegiko bazkideei; hamar eskolatako bonoan %20ko deskontua izango dute. Honako ordutegiak eskaini ditu Miracamposek: astelehenetan 18:30ean, ostiraletan 18:30ean, larunbatetan 13:00etan, eta igandetan 17:30ean.

Koroibos CrossFit-ek ere tarifa murriztua eskainiko die bazkideei: hiru hilabeteko bonoa 135 eurotan izango dute eskuragarri. Eskaintako ordu-tegiak honakoak dira: asteartetan eta ostegunetan, 07:00etatik 08:00etara, 10:30etik 11:30era, eta 20:30etik 21:30era; astelehenetan eta asteazkenetan, 13:15etik 14:15era.

Urtebeteko iraupena du itunak, eta uztailearen lehen sartuko da indarrean. Halere, alde guztiek hitzarmena luzatzeko borondatea agertu dute. "Espero dugu bidea luzea izatea. Bazkideek udal instalazioez gozatzeaz gainera, nahi dugu beste kirol zentro horietan, familia txiki horietan, sartzeara", esan du Zaballos alkateak.

UZTAILAREN 1EAN SARTUKO DA INDARREAN ITUNA, ETA URTEBETEKO IRAUPENA IZANGO DU

'Zerga iraultzaileari' buruzko ikastaroa, hilaren 10ean

Ostegunera bitartean izena eman ahalko da Elkarbizi elkarteak antolatutako aurtengo hirugarren ikastaroan

Martin Vicioso

ETAren zerga iraultzailearen "xantaia ekonomikoari" buruz arituko dira Elkarbizi elkarteak antolatutako aurtengo hirugarren ikastaroan. Ekainaren 10eko goizeko 11:00etan egingo dute, Antonio Mercero aretoan. Deustuko Unibertsitateko irakasle Izaskun Saez de la Fuente arduratuko da hitzaldia emateaz. Soziologia eta politika zientzietan doktorea da, gaiari buruz liburuak ere idatzi ditu, esaterako, *Misivas del terror. Análisis ético-político*



Izaskun Saez de la Fuente. TXINTXARRI

de la extorsión de ETA contra el mundo empresarial izenekoa.

Jakitera eman dutenez, ikastaroaren asmoa da "zerga iraultzailearen xantaiaren antolaketa" azaltzea, eta hark sortutako "kalte eta izua" ezagutzera ematea. Saez de la Fuentearen ustez, biktima askok "pribatutasunean" gordetako gaia izaten jarraitzen du.

Elkarbizik aurtengoa egingo duen hirugarren ikastaroa da. Aurretik, tortura kasuak -apirilaren 5ean- eta jazarpen indarkeria -maiatzaren 10ean- jorratu dituzte.

Ikastaroan izena eman ahal izango da ostegunera arte. Horretarako, ganboiturri@gmail.com helbidera idatzi beharko da, norbere datuak emateko. Plaza kopuru mugatua egongo da.

EH Bilduren kongresurako ildoak eztabaidatu dituzte

Koalizioa berregituratzeko proposamenei buruz aritu dira Lasarte-Orian, ekainaren 17ko biltzarri begira

Txintxarri

Koalizio izaera atzean utzi nahi du EH Bilduk, subjektu politikoa bilakatzeko. Sei urteko ibilbidearen ondoren, "aurrerapauso" bat eman nahi du, garai berrietara egokitzeko. Mahai gainean jarri dituzte dagoeneko eraldaketarako nondik norakoak, eta ekainaren 17ko Bilboko biltzarrean finkatuko dute norabidea. Proposamen horiek herritarrei helarazteko prozesuan daude orain burubelarrari; orain bi aste Usurbilen Buruntzaldeko bilkura egin

ondoren, Lasarte-Orian ere azaldu dituzte eztabaidarako txosten horren ildo nagusiak.

Pablo Barrio eta Jon Martin EH Bilduko kideek egungo egoera politikoren irakurketa eginez nabarmendu dute "aldi berri bat hasteko" beharra. Helburua koalizioa "zabalagoa, dinamikoagoa eta eraginkorragoa" egitea da, Barrioren hitzetan. Eztabaidarako testua oraindik behin-behinekoa da, eta Bilboko kongresura bitartean ekarpenak jasotzen ari dira.



'Wild' obra TXINTXARRI

"Emakumearen ahalduntzea adierazten du nire obrak"

BERNAT SOLSONA ILUSTRATZAILEA

Bernat Solsonaren 'Wild' muralak irabazi du Guztion Lasarte-Oria 2017-ko lehenbiziko saria. Goikale 1eko pasabidean dago ikusgai. Bartzelonako ilustratzailea elkarrizketatu dugu murala eta bere lanari buruz gehiago ezagutzeko

Lorena Lujanbio

Lasarte-Oriako puntu beltzak duintzeko helburuarekin eta berdintasuna gaitzat hartuta, 24 artistaren 39 zirriborro aurkeztu ziren herriko bost pasabide apaintzeko. Horien artean, Bernat Solsona bartzelonarrak lortu du Guztion Lasarte-Oria 2017 saria. **Lehiaketara aurkeztutako Wild muralan zer adierazi nahi izan duzu?**

Lehiaketan genero berdintasuna lantzeko eskatu zuten, eta nire muralan emakumearen ahal-

duntzea kontzeptua landu nahi izan dut. Basatia den emakume bat marraztu dut (*Wild* hitzak basatia esan nahi du ingelesez), animalien gaienetik irudikatuta, horiek menperatzen dituenaren erakusle. Hori da nire mezua.

"LASARTE-ORIAKOA DA PUBLIKOKI ETA TAMAINA HANDIAN EGIN DUDAN LEHENGO OBRA"

Herriko pasabideak atseginoak egitea eta jarduera ekonomikoa eta soziala indartzea izan da ekimenaren helburua. Zer iritzi duzu horrelako proiektuen inguruan?

Aurtengo eta aurreko urteetako muralak ikusteko aukera izan dut, eta esango nuke Lasarte-Oria margolanetan oso bizia den herria dela. Oso interesgarria da mota horietako ekimen artistikoen alde egitea, bai instituzionalki eta baita herritarren aldetik. Onuragarria izaten da guztiontzat.

Tamaina handiko horrelako margolanak egin ohi dituzu?

Egin dudana obra handiena da *Wild* murala. Normalean txikiagoak diren proiektuak egiten ditut enkarguz eta nire kabuz. Editorialekin eta bestelako enpresekin lan egitean tamaina txikiagoko proiektuak eskatzen dizkirate.

Diseinatzailea, ilustratzailea, artista... Nola definitzen duzu zure burua?

Ilustratzaile gisa aurkezten dut neure burua. Diseinua ikasi nuen, baina lan gehiago izaten dut ilustrazioan eta erosoago sentitzen naiz horrela, nahiz eta diseinu proiektuak ere jasotzen ditudan.

Zer diozu proiektuan aurkeztu diren beste margolanen inguruan?

Oso lan erakargarriak eta anitzak iruditu zaizkit denak, eta estilo bakoitza desberdina denez, uste dut pertsonalitate handia transmititzen dutela.

Zure margolanetan murgilduta, nola deskribatzen duzu zure lana?

Eskaeraren arabera izaten da batzuetan. Argialetxe batekin egiten dut lan, eta horrelakoetan ez dira oso obra pertsonalak izaten, mezua eta estiloa beraiek emandakoa izaten baita. Publizitate munduan ere ibili izan naiz lanean eta horrelakoetan ilustrazio bizidunak eskatzen dizkirate maiz bideoetan txertatzeko. Banakako erakusketak eta taldekoak ere egin izan ditut; ilustratzaile talde baten emaitza grafikoa eskatzen dute galeria batzuk. Beste batzuetan, zuzeneko emanaldiak egin ditut marka ezagunentzat.

Zein profil dute zure bezeroek?

Denetarik izan dut, proiektu bakoitzean lan egiteko modua desberdina da, bezeroarekin dudana harremana ere aldatzen delako; enpresa handien eta partikularren eskariak jasotzen ditut, eta malgutasun desberdina eskatzen du bezero bakoitzak. **Lasarte-Orian zure obra bat dugu ikusgai. Zein beste tokietan daukazu erakusketak?**

Bartzelonan, Madrilen eta Londresen. Hala ere, hiru hiri horietan galeria itxietan izan

"ASKO GOZATU DUDAN ESPERIENTZIA IZAN DA. GEHIAGO EGITEKO AUKERA IZATEA ESPERO DUT"

dira erakusketak, Lasarte-Oriakoa da publikoki eta eskala handian egin dudana lehenengoa.

"BESTE LAN GUZTIEK ERE PERTSONALITATE HANDIA TRANSMITITZEN DUTELA USTE DUT"

Zein da zure hurrengo erronka artistikoa?

Ilusioz betetzen nauen proiektu batean murgiltzear naiz. Haurrentzako liburuxka baten formatua izango du, baina komiki eta album baten arteko zerbait izango da. Editorial berezi eta berritzaile batekin egindako kolaborazio bat izango da.

Zure sorkuntzei begira, konturatu gara kolore patroia bera jarraitzen duzula obra guztietan.

Gutxinaka urteen poderioz lortu dudana garapen baten ondorio da. Hasiara batean ez nuen horren maiz egiten, baina orain obraren parte oso garrantzitsu bat da koloreen errepikapena. Kolore lauak erabiltzen ditut, gehienez bost kolore desberdin, eta horien arteko kontrasteaz baliatzen naiz obraren mezua indartzeko.

Zer da Noland?

Bartzelonako *Miscelanea* galerian egin nuen erakusketak batean sortutako kontzeptua da. *Noland* edo ez-lurraldea kontzeptuak nomada den tribu imajinario baten istorioa kontatzeko sortu nuen.

Lasarte-Oriako murala ezaugarri horietako lehenbizikoa izan arren, etorkizunean horrelako proiektuetan murgiltzeko asmoa duzu?

Asko gozatu dudana esperientzia izan da. Normalean eskala txikiagoko margolanak egiten ditut, eta esango nuke esperimendu hau ondo atera zaidala. Gerora horrelako lan gehiago egiteko aukera izatea espero dut. **Nolakoa izan da lasarteoriatarren erantzuna zure obrarekiko? Eta margotze lan prozesuan?**

Bikaina. Asbetez egon nintzen Goikaleko pasabidean lanean nire ilustrazioarekin, eta bertatik pasatzen zen jendeak animo asko eman zizkidan. Interesa agertzen zuten herritarrek, eta lanaren inguruan galdetzen zidaten. Pena bakarra da ezingo dudala bisitatu obra nahi adina aldiz distantziagatik, baina Lasarte-Oriako herritarrek gozatu dezatela espero dut.



2. saria

Obra	'Aniztasuna'
Egilea	Enara Conde Moreno
Kokapena	Buruntza kaletik Jaizkibel plazarako eskailera



3. saria

Obra	'Bilera'
Egilea	Karmele Gorroño Idirin eta Irene Irureta Gutierrez
Kokapena	Jaizkibel plaza 9rako eskailera



4. saria

Obra	'Hegan'
Egilea	Karmele Gorroño Idirin eta Irene Irureta Gutierrez
Kokapena	Donostia etorbidetik Aralar Plazarako pasabidea



5. saria

Obra	'Guztion artean egin dezakegu'
Egilea	Olaia Martínez Altuna
Kokapena	Andatza plaza 4ko pasabidea

ASTEBURUA DANTZAN

ARRAKASTATSUA IZAN DA DANTZARI EGUNA



Kantabriako Suances dantza taldea izan zen gonbidatuetako bat. TXINTXARRI



Igandeko Dantzari Txiki Eguna bikain bukatu zuten parte-hartzaile guztiek. Ttiriki-Ttarrakako kideen doinuen laguntza



Erketzeko kideek, ekitaldia antolatzeaz gain, dantza egin zuten. TXINTXARRI



Usurbilgo Orbeldi dantza taldeko kideek euren trebezia erakutsi zuten. TXINTXARRI



arekin, arin-arina eta fandangoa dantzatu zituzten, eta kalejira erraldoia egin. TXINTXARRI



Ereintzako dantzari gaztetxoek makil txiki dantza taularatu zuten, besteak beste. TXINTXARRI

Beti esan ohi da asteburuak ziztu bizian igarotzen direla. Ostiral arratsaldea iritsi eta ohartzeko astelehen goiza dela. Dagoeneko pasa den honetan ere hori gertatu zitzairen seguru asko, baina Erketz dantza taldekoek (antolatzailea) eta gainontzeko guztiek gozatu ez dutela inork ezingo die esan. Dantzari Eguna ospatu zuten atzo, eta Dantzari Txiki gaur. Dantzan igaro zuten asteburua. ▮

Erketz bera, Kantabriatik etorritako Virgen de las Lindes y del Carmen eta Usurbilgo Orbeldi aritu ziren atzo Okendo plazan, ordubete pasatxo. Euren errepertorioko dantza onenak eskaini zituzten ikusle lepo zegoen oholtza inprobisatuan.

Igandean berriz, dantzari gazteenen txanda izan zen. Lurra, Ereintza, Arkaitz, Urki, Kukuka eta Erketz taldeek hartu dute parte aurtan. Goizean zehar herriko kaleetan barrena desfilatatu zuten, zenbait gunetan geldialdia egin eta dantzak eskainiz. Udaberri elkarteak indarrak hartu eta gero, Okendo plazako oholtza aritu ziren, giro ederrean. Bakoitzak hiruzpalau dantza taularatu zituzten, eta, bukaeran, Ttiriki-Ttarrakako kideen doinuek lagunduta, arin-arina, fandangoa eta kalejira dantzatu zituzten. Ikusle ugari gerturatu ziren igandean ere.



Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako neska-mutilak ederki aritu ziren. TXINTXARRI

"Pozik nago egindako lasterketarekin"

IMANOL GALARRAGA MENDI LASTERKARIA

Euskal Herriko kirol froga gogorrenetako batean hartu zuen parte igandean Imanol Galarraga gazteak: Zegama-Aizkorri mendi maratoian, 06:43:17ko denbora eginez

Martin Vicioso

Lehenengo aldiz, Zegama-Aizkorri lasterketan hartu du parte Imanol Galarraga (Lasarte-Oria, 1995) gazteak. Igandeko bizipenak eta sentsazioak partekatu ditu TXINTXARRI-rekin **Nolatan erabaki zenuen izena ematea?**

Hasierako helburua ez zen aurten parte hartzea. Lasterketa egina duen lankide batek azaldu zizkidan izena emateko prozesuaren nondik norakoak. Zozketan aukera gehiago dituzu urtero saiatuz gero. 8.300 pertsonak eman dute izena aurten, eta lehenengoan egokitu zait niri!

Prest zeunden mendi maratoia egiteko?

Hasieran zalantza handiak izan nituen. Hogei kilometro inguruko lasterketak egin izan ditut orain arte. Etor Mendia prestatzaile fisikoarekin hasi nintzen lanean eta helburua zehazteko eskatu zidan, gerora, haren gainean lan egin ahal izateko. Lasterketa amaitu nahi nuen, eta hori eskuratu ahal izateko pulstazioetan eta denboran oinarritutako ariketak proposatu zizkidan. Mekanikoak, baina eraginkorrak.

Pozik zaude lortutako emaitzarekin?

Bai. Amaitzea zen helburu nagusia eta hori 6 ordu eta 43 minututan lortu nuen. Egia esan, aurretik



Aldapan gora. IMANOL GALARRAGA

egindako frogen ondoren, sei ordu eta erditik jaitea jarri nion helburu nire buruari. Ez zen posible izan, baina kontuan hartuta nire lehenengo mendi maratoia dela, eta hiru hilabetetan prestatu dudala, uste dut lortutakoa nahiko ondo dagoela. **la zazpi orduko esfortzua egin behar izan zenuen. Ez zen xamurra izango.** Ez. Ondo hasi nintzen. Aratz bitarteko bidea erritmo onean egin nuen. Hau da, lehenengo hamasei kilometroak. Goitik beharakoan ez nuen ezer jan, eta agian hori izan zen nire

hutsegiterik larriena. Aizkorrin gora sekulako txakalaldia izan nuen. Gaizki pasa nuen hor. Tontorrean koadrilako lagunak nituen zain eta freskagarri bat hartu nuen bertan. sei ordu eta erdiko helburua ahaztu, eta amaitzeko asmoa soilik nuen buruan. Bost minutu etzanda egin ondoren, nahiko egoera onean jarraitu nuen. Azkenean ez nintzen nire helburutik gehiegi aldendu. Denbora igaro ahala, gehiago baloratuko dudala uste dut.

Giro polita egoten da lastertekan zehar.

Oso. Jende asko biltzen da, eta horrek asko edertzen du lasterketa bera. Lagunak eta familia ere gerturatu ziren ni animatzera, eta hori niretzat euskarri izan zen. Momentu latzetan aurrera egiteko indarra eman zidaten.

Eguraldiak baldintzatu zuen frogara?

Azkenean, uste baino eguraldi hobea eduki genuen igandean. Aste osoa igaro nuen beroaren beldurrez. Hala ere, azkenean, giro egokia izan genuen lasterketan, eta horregatik uste dut garaileek markak hobetu zituztela.

Errepikatzeko asmoz?

Bai. Berririo zozketan sartu beharko naiz, baina egokituz gero, aurtengo marka hobetzen saiatuko naiz.



Frogan parte hartu zuen herritar taldearen argazkia. RAMON ALTUNA

Zortzi herritar Gran Fondo Orbea txirrindularitza frogan

180 kilometroko froga osatu zuten bizikletaz zortzi kirolari lasarteoriarrek larunbatean, Gasteiz inguruan

Martin Vicioso

Gogortasun handiko froga burutu zuten herriko zortzi txirrindularik. Gasteizko Gran Fondo Orbea frogan lehiatu ziren Javi Sanchez, David Martin, Joxi Diez, Mikel Galdona, Cesar Zarrakuñños, Unai Lizaso, Dani Uzkudun eta Ramon Altuna.

180 kilometroko ibilbidean bost portu igo zituzten, 3.100 metroko desnibel positiboa gaindituz.

Gasteiztik abiatu, eta Vitoria eta Rivas mendateak igo zituzten. Samaniegora jaitsi ostean, lasterketako maldarik gogorrena igotzeari ekin zioten: Herrera, lehenengo mailakoa. Bernedotik bertako portua igaro ondoren, Pierola upeltegietara iritsi ziren. La Aldea, Trebiñu eta Zaldiarandik amaitu zuten lasterketa Gasteizen.

Sei orduko esfortzua

Parte hartzaile lasarteoriarrek nabarmendu dutenez, "exijentzia

maila handiko" froga da Gran Fondo Orbea.

Irabazle Diego Sanchezek bost ordu eta 21 minutu behar izan zituen ibilbidea burutzeko, eta herritarrek sei orduen bueltan amaitu zuten.

Lasarteoriarren artean azkarrena David Martin izan zen, 05:56:45eko denborarekin. Dani Uzkudenek ere sei orduetatik jaitsi zuen. Hiru diploma mota banatu zituzten egindako denboraren arabera.

Sei ordu baino gutxiago behar izan zutenek urrezkoa jaso zuten. Hau da, David Martinek eta Dani Uzkudunek hura eskuratu zuten. Beste sei herritarrek zilarrezko diploma etxeratu zuten, sei eta zortzi orduen artean amaitu baituzten froga.

Gasteiztik Arabar Errioxa zeharkatzen duen lasterketa honen bigarren edizioa izan da aurtengoa.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

KADETEEN 1GO MAILA, KOPAKO FINALA

Ostadar SKT - Mariño CD

Larunbata. 17:00. Zubieta, Donostia.

IGERIKETA

GIF SARIA

Buruntzaldea IKTKo Paula Sevillano,

Ainhoa Martin, Leire Martin, Unai Irigoras eta Jon Ibagoyen GIF sarian lehiatuko dira.

Larunbata. 09:00. Paco Yoldi, Donostia.

UDABERRIKO LIGA

Buruntzaldea IKTKo igerilari infantil, junior eta absolutuek Udaberriko ligako hirugarren jardunaldian parte hartuko dute.

Larunbata. 15:00. Alluralde, Andoain.

PILOTA

GIPUZKOAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA, FINAL 8RENAK

Irazustabarrena (Intxurre) - Artetxe (Intza)

Larunbata. 16:00. Altzo Muino pilotalekua, Altzo.

EKIALDEKO FASEKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

Solano (Intza) - Huegun (Euskal Giroa) Larunbata. 12:00, Loidibarren pilotalekua.

Iruretagoiena (Intza) - Zangitu (EPLA)

Igandea. 11:00, Loidibarren pilotalekua.

INFANTILAK

Intza - Mundarro

Ostirala. 19:30, Michelin pilotalekua.

ALEBINAK

Hernani 4 - Intza 1

Larunbata. 16:00, Ereñotzu, Hernani.

Hernani 5 - Intza 2

Larunbata. 16:00, Ereñotzu, Hernani.

ATLETISMOA

EUSKADIKO TXAPELKETA

LOKE taldeko atletiek absolutu mailako txapelketa jokatu dute.

Larunbata eta igandea. Goiz eta arratsalde, Durangon.

MENDI LASTERKETAK

EREÑOTZUKO MENDI LASTERKETA

Zenbait herritarrek VII. Ereñotzuko Mendi Lasterketan hartuko dute parte.

Igandea. 10:30. Ereñotzu.

BTT

ISKIBI BTT ZEHARKALDIA

Asier Diaz, Endika Gartzia eta Cristian Miranda herritarrek VIII. Iskibi BTT zeharkaldian lehiatuko dira.

Igandea. 09:00, Goizueta.

MENDI MARTXA

EUSKAL HERRIA MENDI ERRONKA

Jon Lasarte eta Javier Olazagotia herritarrek Leitzalde zeharkatzen duen Euskal Herria Mendi Erronkan parte hartuko dute.

Larunbata. 08:00 Leizta.

LOKEko gimnastak, txukun Euskadikoan

LOKE taldeko gimnasta Alazne Gonzalez bigarren geratu da Euskadiko Txapelketan, zintarekin egindako ariketari esker. Taldeka zazpigarren postua eskuratu zuten, oro har lan txukuna eginez eta denboraldiari azken ukitu dotorea emanez

Martin Vicioso

Gipuzkoako Txapelketan egindako lan bikaina errepikatu zuen Alazne Gonzalezek pasa den larunbatean Durangoko Landako kiroldegian. Senior B mailan bigarren ariketarik onena egin zuen Gonzalezek zintarekin. Entrenatzaile Maite Ruedak nabarmendu duenez, "harro egoteko moduko" saioa egin zuen lasarteoriatarrek. Guztira 22k hartu zuten parte Durangon.

Pilotarekin makalago aritu zen, baina halere, onenen artean sailkatu zen: seigarren puntuaketarik onena izan zen berea.

Zapore gazi-gozoa

Taldeka zazpigarren postuan sailkatu ziren LOKEko seniorrak hamalau taldeetatik. Ruedak nabarmendu zuen saio ona egin zutela, baina "baloiarekin egindako akats baten ondorioz" geratu zirela podiumetik kanpo.

Hortaz, taldekako lanak zapore gazi-gozoz bukatu ditu aurten senior taldeak.

Gipuzkoakoan brontzeko domina eskuratu zuen Aizpea Arroyok, Alazne Gonzalezek, Nora Fabianek, Haizea Gomezek eta Naroa Sanzek osatutako taldeak. Eibarren egindako saioak Durangorako txartela eman zion LOKEri.

Erregulartasunari saria

Ruedak adierazi duenez, "ez dute kexatzeko arrazoirik". Oro har, denboraldi txukuna egin dute, entrenatzailearen ustez. Gimnasta asko ikastera Lasarte-Oriatik kanpora joan izanak asko baldintzatu du taldea aurten. Taldekide batzuk hilean behin soilik izan dute entrenatzeko aukera. Hori kontuan izanik, "emaitza onak" izan dituzte aurten.

Asteroko entrenamenduetara joateko parada izan duten gimnasten emaitzak ere



Alazne Gonzalez, podiumeko bigarren koskan. MAITE RUEDA

GONZALEZEK GIPUZKOAKO TXAPELKETA IRABAZI ZUEN AURREKO ASTEAN EIBARREN

nabarmendu ditu Ruedak. Gehienek saria eskuratu dute Gipuzkoako Txapelketara sailkatuz, eta, batzuk, gainera, Euskadikora.

Azken hitzorduak

Denboraldiko balorazio "positiboa" egin du, hortaz, LOKEko gimnastika erritmikoko ataleko arduradunak. Bizi duten testuinguruan emaitza onak lortzea "zaila" dela onartu arren, "pozik" dira aurtengo emaitzekin.

Txapelketa nagusiak dagoeneko amaitu dituzten arren, oraindik ere beste batzuk jokatu beharko dituzte aurtengo denboraldiari behin betiko amaiera eman aurretik.

Hilaren 10ean eta 18an bi txapelketa jokatzeko aukera dute Bizkaia aldean, Leioan lehena, eta Getxon bigarrena.

Dena den, entrenatzaileak azaldu duenaren arabera, oraindik ez dakite bertan parte hartuko duten ala ez.

Izan ere, ekainaren 18an, LOKE taldeko denboraldi amaierako festa ospatuko dute, urtero legez, klubeko beste atalekin batera.

Aldi berean, gimnastika erritmikoko talde guztiek erakustaldia eskainiko dute kiroldegian ekainaren 17an.



Eizagirre, urdinez. ANDER GOIKOETXEA

Coimbran lehiatu da Eizagirre judoka, Europako Kopan

Brontzea eskuratzeko borrokara sartzeko aukera galdu du kadeteak, eta 7. postua eskuratu du txapelketan

Adrian Garcia

Denboraldi txukuna borobildu du Eneko Eizagirre kadete mailako judokak. Joan den asteburuan Coimbran, Portugalen, lehiatu zuen, Europako Kopan. Bi borrokaldi egin zituen Eizagirrek, baina ongi lehiatu arren, ez zuen garaipenik eskuratu. Halere, Gorka Aristegi LOKE Judoko entrenatzaileak Txintxarri-ri azaldu dioenez, "pozik eta helburuak beteta" itzuli da judoka. "Eskarmentua irabaztea zen helburua, eta egindakoaz gozatzea". Ez da lehen aldia

gazteak nazioarteko txapelketa batean parte hartzen duela; otsailean Europako kadete txapelketan izan zen.

Eric Dos Santos frantziarraren aurka galdu zuen lehen borroka. Hurrengoa irabazi izan balu, brontzerako lehiari sar zitekeen. Baina Nicolas Diez espainiarraren aurka galdu zuen aukera.

LOKE denboraldia ixtear da, eta dagoeneko prestatzen hasiak dira urteroko erakusketa; ekainaren 18an izango da. Halere, oraindik badituzte txapelketak; 24an Santanderren (Espainian) lehiatuko dute seniorrek.

Beltzak RT-k denboraldi amaierako jaialdia ospatuko du bihar

Besteak beste, zendutako Aitor Urangari egingo diote errugbi taldeko lagunek omenaldia 15:00etatik aurrera

Txintxarri

Urte loriatsua izan da Beltzak RT-rentzat. 16 urtez azpikoen taldea Euskadiko txapeldun izan da, eta 14 urtez azpikoak txapeldunorde. Babyauto Zarautz taldean jokatzeko duten lasarteoriatarrek ere azken unera arte borrokatu dute igoera.

Denen artean ospatuko dute denboraldia bihar Michelingo zelaian. Arratsaldeko 15:00etan hasiko da festa, gaztetxoentzako jolasekin.

16:30ean Beltzak RT-ko sustatzaile izandako Aitor Uranga

omenduko dute. Beltzak eta Lagunak konbinatu seniorrak Atletico San Sebastian taldearen aurka jokatu du. Inguruko taldetan aritzen diren jokalariek lasarteoriatarrek osatuko dute Beltzak RT-ren hamabostekoa.

Amaitzean, errugbiaren kanonak zorrozki jarraituz, parte hartzaile eta ikusle guztiek hirugarren denbora ospatuko dute batera.

Errugbi zaleak diren lasarteoriatar guztiak gonbidatu dituzte biharko festan parte hartzera eta kirolarekin gozatzera.



Aurtengo edizioako finalista Kattagorri Insausti eta Izkiña taldeek argazkia atera zuten elkarrekin, bukatu ostean. TXINTXARRI

Izkiña taberna, txapeldun beste behin

Izkiña tabernako jokalariek altxa dituzte herriko areto-futbol txapelketako kopa eta ikurrina aurten ere. 3-4 irabazi zioten Kattagorri Insaustiri joan den larunbatean, golez betetako finalean. Kontsolazio faseko txapelduna, berriz, Indaux izan da.

Iñigo Gonzalez

Duela urtebete pasatxoko argazkia errepikatu da aurten ere: Izkiña taberna izan da herriko areto-futbol txapelketako irabazlea. Beraiek altxa zituzten joan den larunbat arratsaldean ikurrina eta kopa. Beraiek jantzi zuten txapela. 2016an gertatu bezala, urdin kolorea hartu du txapelketak.

Irabazleen kolorea urdina izan zen azkenean, baina zenbait minutuz gorri-beltza izan zen. Izkiñaren arerio Kattagorri Insaustik 3-leko aldea zeukan hamar minuturen faltan, baina txapeldunek ederki jokatu zuten atezain-jokalariekin eta markagailuari buelta ematea lortu zuten. Jokalarien kalitate teknikoak baino, esperientziak desorekatu zuen balantza atzokoan. Izan ere, *bizitza osoa* daramate Izkiñako jokalariek kirol honetan aritzen. Eta pasa den asteburukoa bezalako zita garrantzitsuetan abantaila izan ohi da.

Aurreneko zatia orekatua izan zen oso. Esan beharrik ere ez dago, garaipenaren bila atera ziren bi taldeak, baina lehenengo zatian bestearen indarrak neurtu zituzten biek. Kattagorri Insaustik eman zuen lehenengo kolpea, baina atsedenaldira joateko pare bat minutu falta zirela, partidua berdintzea lortu zuen Izkiñak.

Golak eta zirrara 2. zatian

Oreka hitza erabili bada atzoko lehenengo zatia definitzeko, *emozioa* izan daiteke aproposa bigarrenerako. Edo *zirrara*. Edo *golak*. Denetik egon zen.

Bi taldeek aukera garbiak eduki zituzten markagailuan aurrea hartzeko, Izkiñak batez ere. Dena

INDAUXEK IRABAZI DU KONTSOLAZIO FASEA, REFORMAS LAGUNAK PENALTIAZ GARAITU ETA GERO

del, Kattagorri Insausti aurreratu zen berriz. Aurreratu, eta aldea handitu, bigarrena sartu eta minutu bakarrera jarri baitzuen 3-1ekoa. Lehenengo zatian egin bezala, atezain-jokalariaren sistema erabiltzen hasi zen Izkiña, eta aurreneko 25 minutuetan lez, etekin handia atera zion. 3-4koa penaltiz sartu eta txapelketa irabazi zuten.

Final handia baino lehen, Indaux eta Reformas Lagunak taldeek kontsolazio finala jokatu zuten. Arauzko denboran launa berdindu ostean, Indauxek irabazi zuen penaltietan. Horren ostean, hainbat jokalarik animatu ziren Jalgunekin lagunekin batera partidutxo bat jokatzerara.

Bukaeran, sariak banatu zituzten antolatzaileek. Iñaki Aristondo (Kattagorri Insausti) izan da jokalarik onena. Jatorrena, berriz, Jon Pello Artetxe (Ilargi). Yosu Lopez (Trumoi) izan da atezain onena eta gol gehien Ander Pecharromanek (Kattagorri Insausti) sartu ditu.

Euskal Ligara igotzetik pauso batera geratu da Ostadar SKT

Ohorezko jubenil mailako taldeak ezin izan zuten maila igotzeko bigarren aukera baliatu. Astrabuduako igo da.

Txintxarri

Denboraldi bikaina egin eta gero, ezin izan dute igoerarekin biribildu. Ohorezko jubenil mailako taldeak Araba eta Bizkaiko ligetako bigarren sailkatuen aurka (Laudio eta Astrabuduako, hurrenez hurren) jokatu zuen joan den larunbatean, Leioan (Bizkaia). 45 minutuko bi neurketa jokatu zituen hautagai bakoitzak.

Ostadarrek eta Astrabuduakok jokatu zuten aurreneko neurketa. Bi taldeetako bakar batek ere ez zuen gehiegi arriskatu nahi izan, eta pertsua izan zen dema. 0-0 bukatuko zela zirudienean, bizkaitarrak aurreratu ziren 45. minutuan. Kolpe latza urdin-beltzentzat, baina berehala erreperatu ziren, eta berdintzea lortu zuten Jokin Otamendiren golari esker. Penaltiak jaurti behar izan zituzten ondoren, eta

Ostadarrek ez zuen zorterik izan. 4-3 galdu zuten.

Segidan jokatu zuen bigarren neurketa Laudioaren aurka. Irabazi beharra zeukaten aukerarik eduki nahi bazuten, eta hala egin zuten, 2-1.

Astrabuduakok irabazten ez bazuten, edo, gehienez 1-0 gailentzen bazen Laudioaren aurka, Euskal Ligan zatekeen Ostadar. Baina azkar zapuztu zen ametsa, lehenengo minutuetan 2-0 aurreratu zirelako bizkaitarrak. Haiek igo dira azkenean, bigarren partiduan 3-1 irabazita.

Poza bikoitza izango zitekeen klubarentzat jubenilak Euskal Ligara igo izan balira, bigarren taldeak denboraldi bikaina egin eta Ohorezko mailara igo delako. Halere, lehen taldea igo ez denez, kategoria berean lehiatuko du hurrengo denboraldian.

Iñaki Errazkin 3. Euskadikoan

Buruntzazpi taldeko infantil mailako txirrindulari Iñaki Errazkin podiumera igo zen Euskadiko txapelketan. Meritu handiko hirugarren postua eskuratu zuen kirolari gazteak.

Bestalde, kadete mailako Gipuzkoakoan 8. postuan iritsi zen helmugara Asier Pozo (1go urteko aurreneko kadetea izan zen), eta 23. ean Markel Aristegi.



BURUNTZAZPI

Lasartearra futbol talde ohiaren festa, ekainaren 10ean

Lasartearra futbol taldea zeneko kideek festa antolatu dute ekainaren 10erako, 1970etik 1982ra bitarteko denboraldietan jokatu zutenak biltzeko. Erribera kaleko egoitzan ospatuko dute festa hori, bazkari batekin, 14:00etan. Maiatzaren 31 da apuntatzeko azken eguna. Patxi Larrañaga harategira edo Publibrock-DV bulegora joan behar da.

Squash txapelketa, bigarren fasean murgilduta

Sei onenek aurrera egitea eskuratu dute Lasarte-Oriako XXIX. Squash Txapelketan. Ekainaren 17an jokatuko den finala lehiatzeko txartel bila arituko dira Iker Cañedo, Gorka Arretxe, Kinin Calvo, Xabier Azaldegi, Iñaki Garcia eta Imanol Olaizola. Dagoenekoek kontsolazio fasea jokatuko dute partidua bakarrera.

ZORION AGURRAK



Maddi
Zorionak printzesa!
Ondo pasa zure urtebetetze egunean Jare, aitabko eta amatxoren partetik!



Hugo
Zorionak bitxutxo!! 4 muxutxo eta besarkada handi bat denon partetik! Asko maite zaitugu!



Laura
Zorionak printzesa, lau muxu potolo etxeko txikiarentzat, aita, ama eta Luciaren partetik!



Ane
Gure etxeko txikiak ohartu gabe hamahiru urte bete ditu. Zorionak! Ondo ospatu! Gurasoak, Xabier eta Josu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en

txintxarri.eus/zorionagurra eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali

txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ez ahaztu irudia abxikitzeaz.

Bulegora

Etor zaitetz Txintxarriko bulegora edo deitu 943 37 14 48 telefonora.

SUDOKUA

	6		2			9		1
		8		4		6		2
1		2	6				5	4
		7	3					8
3	8			2				
	5	1	8		9	4		
7			4	8			6	
		3	7				4	9
	4	6			5	1		7

GUTUNA

Biba Mintzalagunak!

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Ezer gutxi eskatzen omen du eta asko eman. Probatu dutenek diote jendearen arteko harremanak areagotzeko ezin hobea dela eta lehen ezinezkoak iruditzen zitzaizkien hainbat gauza egiten dituztela orain; euskaraz poteatzea, kasu. Ezin hobea da, gainera, nork bere buruarengan konfiantza, soltura eta maila hobea eskuratzeko. Ez da harrizkoa probatu duten gehienek esatea orain gehiagotan egiten dutela lankideekin, lagunekin, baita merkatariekin ere.

Ekimenaren bueltan, Euskal Herrian 6000 pertsona elkartzen dira astero euskarari arnasa emateko. Ordu betez aritzen dira elkarrekin euskaraz hizketan. Hogeita lau urte daramatzate Mintzalagunek txingurri lan etengabe horretan, euskaraz praktikatzeko gogoz diren bidelariak eta horretan laguntzen dieten bidelagunak. Erleak eta loreak bezala, batak besteari emanez, inguruko guztioi on eginez. Mintzalagunek

herriz-herri egiten duten lanari esker, euskal hiztunak ugaritzen direlako, harreman sare berriak sortzen direlako eta euskaraz aritzeko gune berriak irabazi.

Mekanikoak, sukaldariak, erizainak, jardinerak, administrariak, zerbitzariak, ikasleak, jubilatuak, mendizaleak, parrandazaleak, musikazaleak, txirrindulariak, kazetariak, okinak, irakasleak eta bururatu ahal diren ofizio eta bizio guztietakoak dira. Motibo ezberdinengatik hasi ziren honetan: euskaraz aritzeko lotsa gaintetik kentzeko, ahaztutako hizkuntza freskatzeko edo beste batzuei lagunduz, euskarari ekarpena egitearren... ordubeteko konpromisoa astean. Urrea balio dute ordubete horiek! Talde bat elkartzen deno ematen da euskaraz bizitzeko pauso bat.

Ordu bete horiek askorako ematen dute, gainera. Kafe baten bueltan hasitako berbaldi horiek bestelako formak hartzen dituzte: pintxo-pote, mendi-buelta, kontzertu, jaialdi eta abarrak. Elkarri kontu gehiago

esan ahala, konfiantza irabazi ahala, lotsak biluztu ahala, esperientzian sakontzeko gogoa indartzen baita. Kariñoa hartzen diote elkarri. Halaxe sortzen dira gero lagun talde euskaldun berriak. Udaberriaren loreak bezala. Eta halaxe jarraitzen dute askok elkartzen egitasmoaren helburua bete ostean ere.

Bidelariak eta bidelagunak. Kontzienteki ala ez, gure hizkuntzaren aktibistak dira. Euskararen erabilera indartzen ari diren aktibista zuzenak. Elkarrekin astero euskaraz arituz, arnas freskoa ematen diotelako gure hizkuntzari. Arian-arian, egunero euskaraz bizitzearren aldeko jarrera iruten dabiltzalako Euskal Herri osoan zehar.

Lasai esan dezakegu Mintzalagunek Lourdeseko urak baino onura gehiago dakartela gurera, mirarrietan baino, ekinaren ekinez lortutako ezinetan sinesten dugulako. Guk Berbalagunen, Mintzalagunen, Solaslagunen, Solaskideengan sinesten dugu, euskaraz

bizitzearren alde dabiltzalako. Astero-astero eta herriz-herri, geroz eta gehiago dira euskararen alde egotetik euskaraz egitera, praktikotasunera, jauzi egiten ari direnak. Euskararen aktibistak.

Datorren asteburuan ospatuko dute Mintza Eguna Derion. Euskal Herri osoko Mintzalagunak elkartuko dira, festa giroan, euskaraz gozatzeko. Izan dadila Derio harremanak estutzeko hitzordu. Izan dadila urtean zehar egindako lana eta etorriko diren lorpenak ospatzeko jaiak. Mintzalagunen jai handia! Bejondeizuela!

OHARRAK

Txokoetako haurren gurasoekin bilerak

3 eta 4 urte bitarteko haurren gurasoek (HH3-HH4 taldekoek), ekainaren 9an, ostiralean, izango dute bilera, kulturetxean. Euskarazkoa 17:40ean izango da, eta, gaztelarazkoa, 17:00etan. 5 eta 7 urte bitarteko haurren gurasoek (HH5-LH2 taldekoek), ekainaren 9an, ostiralean, egingo dute bilera, kulturetxean. Euskaraz 18:20ean egingo dute, eta, gaztelaraz, 19:00etan.

8 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoek (LH3-LH6 taldekoek), ekainaren 8an, ostegunean, dute bilera, kulturetxean. Euskarazkoa 17:45ean izango da, eta, gaztelarazkoa, 19:00etan.

Emakumezko erregionaleko taldea

Ostadar SKT-k deialdi berezi bat egin nahi du, emakumezko erregionaleko taldea osatzeko. Taldea osatzeko jokalaririk falta dela-eta herritik kanpo jokatzeko ari diren neskei deia egin diete. Aldi berean, edonork futbola jokatzeko gogoa baldin badauka, eta 15 urte baldin baditu, hurbildu mesedez Mitxelineran, ekainaren 5ean eta 7an, 20:00etan.

AZOKA TXIKIA

2. LANA

202. ESKAERA

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest 631184453

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest 631655499

Emakumea eskaintzen da adineko pertsoan zaintzeko. Asteburuetan, jaiegunetan zein gauetan lan egiteko prest. 606661048 / 943-404015

3. BESTELAKOAK

101. SALDU

Garaje marra alokatzen dut Donostian (Ondarretan) 645706658

Bi plazako garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalena. 686674552

Garaje marra alokatzen dut Atsobakarren, Golf plazan, Garaikoetxea eskolaren parean. Autoarentzat edo motorarentzat egokia. Handia eta sarbide onarekin. 659 02 19 45

TELEFONOAK


UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 288 888
SOS DEIAK: 112

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

*Eskola egunetan

JAIOTAKOAK

Ainara Benito Tejero. Maiatzaren 23an.
Irati Rodriguez Muñoz. Maiatzaren 26an.
Mikel Garcia Gutierrez. Maiatzaren 29an.
Xabier Parra Gastiain. Maiatzaren 30an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 2	ACHA-ORBEA
Larunbata, 3	ORUE
Igande, 4	ORUE
Astelehena, 5	ORUE
Asteartea, 6	URBISTONDO
Asteazkena, 7	LASA
Osteguna, 8	GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.colgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicioso, Lorena Lujanbio
Adrian Garcia

Publizitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa

Xabier Amadoz

Administratzailea

Nerea Garcilarena

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA

LAGUNTZAILEAK



LASARTE-ORIA
UDALA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 2

LASARTE-ORIA Festa

Zabaleta auzoko festetako egitarauaren barruan ekintza asko egongo dira arratsaldetik gauera. Antzerkia eta txokolatadarekin hasi ondoren, Teresa sorgina jaitsiko da auzora eta pregoia entzungo dute bertaratutakoek. Sorgin dantzako, Dinbi bandako, Jalguneko eta Gazte klubeko lagunek giroa alaituko dute. Afalostean Kukukako kideek dantza garaikideko erakustaldia emango dute. Bukatzeko, Ezinke erromeriak jarriko du plaza dantzan **Antonio Blas plaza, 18:00etan.**



LASARTE-ORIA Festa.

Zabaleta auzoko festekin gozatu ahal izango da asteburuan. Musika, dantza, kirola, jolasak eta beste hamaika ekintza antolatuta dituzte Zabaleta Auzolan elkarteak kideek haien 25. urteurrenean. **Ostiraletik igandera, Zabaleta auzoan.**

LARUNBATA 3

LASARTE-ORIA Festa

Zabaleta auzoko festak. Sorgin krosa, Kukukaren desfileak eta eskoba txapelketak hasiko dute eguna. Mus txapelketak abiatuko ditu arratsaldeko ekintzak. Ondoren, Txan magoaren eta bertsolariaren emanaldiak egongo dira. Zikiro afariarekin beteko dute sabela, eta gaua musikarekin amaituko dute. Zozongo, The Lobsters, Bar Remigio eta Erokomeriren emanaldiez gozatu ahal izango da. DJ Terexa arduratuko da gaueko ordu txikiak girotzeaz. **Antonio Blas plaza, 11:00etatik aurrera.**

LASARTE-ORIA Aldarrikapena

Sarek deituta, "sakabanaketari, larriki gaixorik dauden presoen egoera larriari, zigorrek metatzeari eta salbuespen legediari" ezetza emango diote puxikekin Zabaletako festetan. **Antonio Blas plaza, 20:00etan.**

LASARTE-ORIA Festa

Ostadar SKT-k denboraldi amaierako jaia egingo du. Umeei zuzendutako jolasak egongo dira. Ondoren, Okendo Zinema Taldea, Axier Arteaga eta taldeko jokalarri jatorrenak emenduko dituzte. Hirugarren denborarekin amaituko dute. **Michelin, 11:00etan.**

ANDOAIN Kontzertua

Kepa Junkera eta Sorginak taldeak Maletak diskoaren aurkezpena egingo du. Sarrerek 10 euroko kostua izango dute. **Bastero kulturgunea, 21:30ean.**

IGANDEA 4

LASARTE-ORIA Festa

Zabaleta auzoko festak. Patata tortilla txapelketak eta dantzarekin hasiko dute festetako azken eguna. Bazkalarretik desafioa egingo dute emakumeek harriarekin Pepeneko zaldiaren aurka. Urteroko froga mistoaren txanda iritsiko da, ondoren. Herri bazkaria egin ondoren, kanturako eta dantzarako tartea edukiko dute Xumelarekin eta Gozategirekin. Toka txapelketak eta azken trakak amaituko dute festa. **Antonio Blas plaza, 11:00etatik aurrera.**

ASTEARTEA 6

LASARTE-ORIA Antzerkia

15. Antzerki eta Dantza hamabostaldiaren egitarauaren barnean, Landaberri Ikastolako eta Zubietako Herri Eskolako LH3 eta 4ko ikasleek euren antzeztan aurkeztuko dituzte.

Manuel Lekuona, 09:45ean eta 19:00tan.

ASTEAZKENA 7

LASARTE-ORIA Antzerkia

15. Antzerki eta Dantza hamabostaldiaren egitarauaren barnean, Sasoeta Ikastetxeko LH 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleek euren antzeztan aurkeztuko dituzte.

Manuel Lekuona, 10:30ean eta 19:00tan.

OSTEGUNA 8

LASARTE-ORIA Antzerkia

15. Antzerki eta Dantza hamabostaldiaren egitarauaren barnean, Landaberri Ikastolako, Sasoetako Ikastetxeko eta Zubietako Herri Eskolako LH1 eta 2ko ikasleek euren antzeztan aurkeztuko dituzte.

Manuel Lekuona, 10:30ean eta 19:00etan.

HERNANI Garagardo Azoka

Hernaniko Garagardo Azoka antolatuta du Hernaniko Errugbi Taldeak. Mota askotako garagardoa dastatu ahal izango da.

Atsegindegi, 18:00etan

ZINEMA

USURBIL

URBIL

Alien: Covenant

Ostirala: 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Larunbata: 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Igandea: 17:00, 19:30, 22:00.

Déjame salir

Ostirala: 15:45, 17:55, 20:05, 22:15, 00:30.

Larunbata: 15:45, 17:55, 20:05, 22:15, 00:30.

Igandea: 15:45, 17:55, 20:05, 22:40.

El bebé jefazo

Ostirala: 15:45, 17:50.

Larunbata: 15:45, 17:50.

Igandea: 15:45, 17:50.

El caso Sloane

Ostirala: 15:45.

Larunbata: 15:45.

Igandea: 15:45.

Fast & Furious 8

Ostirala: 00:00.

Larunbata: 00:00.

El círculo

Igandea: 22:25.

Guardianes de la galaxia vol.2

Ostirala: 19:45, 22:40.

Larunbata: 19:45,

22:40.

Igandea: 19:45, 22:15.

La Promesa

Ostirala: 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

Larunbata: 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

Igandea: 16:15,

19:00, 21:45.

Piratas del Caribe: La Venganza de Salazar

Ostirala: 16:20,

17:00, 18:00, 18:30, 19:20,

20:00, 20:40,

21:20, 22:00,

22:30, 23:30, 00:40.

Larunbata: 16:20,

17:00, 18:00,

18:30, 19:20,

20:00, 20:40,

21:20, 22:00,

22:30, 23:30,

00:40.

Igandea: 16:20,

17:00, 18:00,

18:30, 19:20,

20:00, 20:40,

21:20, 22:00

Richard zikoina

Larunbata: 15:50.

Igandea: 15:50.

Un italiano en Noruega

Ostirala: 15:50.



LABURPENA

Richard zikoina

Zuz.: Toby Genkel, Reza Memari. **Herr.:** Luxenburgo (2017). **Gidoia:** Reza Memari. **Aktoreak:** Tilman Döbler, Cooper Kelly Kramer, Shannon Conley, Nicolette Krebitz. **Iraupena:** 85 minutu.

Zikoinen artean

Richard zikoinek hezitako txolarre umezurtza da, bere burua zikoinatza duena. Negua iristean, lurralde epelagoetara lekualdatzeko garaian, bere zikoina familiak txolarre bat dela kontatu, eta basoan geratu behar duela esaten dio, ez baitu Afrikaraino iristeko bidaia luzean bizirauteko aukerarik izango. Richard ez dago konforme, eta benetako zikoina dela erakutsi nahiko die, bidaia luzea bere kabuz eginez. Lagun imaginarioa duen hontza xelebrea, eta abeslari famatua dela pentsatzen duen perikitoa izango ditu bidaia-lagun. Oztopo ugari gainditu beharko ditu abentura zirraragarrian:

saguzar arrisksuak, Internetera engantxatuta bizi diren usoak, bele mafiosoak, gorreria eragiterainoko zarata egiten duen Boeing 747 bat...

Afrikarako bidea topatzen duenean, beste ezusteko bati egin beharko dio aurre. Zikoinetako bat, azkonar beldurgarri baten atzaparretan preso dago, eta ihesaldian lagundu beharko dio. Zikoina txikiak barruan duen txolarre indartsua askatu beharko du, ihes egin eta bere familiarekin elkartzeko. (ZINEUSKADI).

Haurrentzako euskarazko film hau ikusi ahal izango da Urbil merkatal zentroan larunbatean eta igandean, 15:50ean. Toby Genkelen animaziozko zazpigarren filma da.



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

943 36 46 00
www.lhusurbil.eus

AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALIK ekainaren 5etik 16ra

Fabrikazio mekanikoa




Elektrizitate-elektronika



Administrazioa



Produktzio zerbitzu
eta mantenimendua



Energia eta ura



**Erdi eta goi mailako zikloak
A, B eta D Ereduak**



**HERNANI
LANBIDE
HEZIKETA**

Gizarte Berrikuntzako LHII — CIFP Innovación Social



HEZIKETA ZIKLOAK

www.hernanilanh.eus



2017-2018 ikasturtea

AURREMATRIKULAZIOA


Ekainaren 5tik 16ra



Euskal Enpleau Zerbitzua

Hizkuntz Ereduak:
(D) = Euskera, (B) = Mixtoa, (A) = Erdera.

**ZATOZ
edo
DEITU!!**



GOI MAILAKO ZIKLOAK D ereduan

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

ESKAINITZA PARTZIALA

**Fabrikazio Mekanikoko
diseinua**

**Animazio soziokulturala
eta turistikoa**

**Sistema elektroteknikoak
eta automatizatuak**

**Elementu metalikoen
fabrikazioa
(A-D ereduak)**

**Mantente-lan
elektromekanikoak
(D ereduak)**

**Mekanizazioa
(B-D ereduak)**

**Instalazio elektrikoak
eta automatikoak
Mekanizazioa
(A ereduak)**

